

IRITZIA

Jon Garate

E REPERTAIA

Sendabelarren
nondik norakoak

B

011

1998ko maiatzaren 9a
VI. urtea - 235. zkia.

UDALETXETIK

HB: "Politikoen
dietak bikoiztu
egin dira azken
bi urteotan"

BEFIBETAN

4.111

Jokin Martinez,
Antxieta Antzerki
Taldeko kidea


KULTURA

Gorka Salmeronen
argazki erakusketa

G O I B A R K O A S T E K A R I A



INkr'.1



Alfredo Elortza:

"Euskaldunok aspalditik
erabiltzen ditugu sendabelarrak"



ION GARATE

Tentazioak eta tentazioak

Hitz hauek irakurtzeari ekiten diozunera-ko Urruzuno Literatur Astea bere azken hondarretan izango da. Beharbada ez duzu jakingo zertaz ari natzaizun (Literatur Astea? Non? -galdetuko duzu). Ez da harritzekoa, gure herrian letra kontuek duten oihartzuna ikusita. Hala ere, zorioneko zaude oraindik arrats-eko zazpiak jo ez baldin baditu, izan ere, ordu horretan emango baitio hasiera Jasone Osorok bere *Tentazioak* liburuaren aurkezpenari. Joan zaitzake, bada, Kultur Etxera eta gero esan: ja! Kul turzalea naiz ni, benetan!, bien bitartean norbaitek bizkarrean kolpetxoak ematen dizkizularik. Baina bromak albo batera utzirik, eta orain artekoa aprobetxatuz, liburuei buruz hitz egingo dizut. Bai, badakit, ostirala da, lanegun gogorra izan da, eta ez duzu sennoirik nahi. Baina emaidazu aukera bat, eta agian ez zaitut aspertuko.

Ezer baino lehen, bi talde azaldu nahi dizkizut: bata, txiki-txikia, irakurketa maita duena; bestea, handi-handia, komunean Quijote-ko orrialdeekin ipurdia lasai-lasai garbituko lukeena. Lehenbizikoetarikoa baldin bazara, zorionak... eta agur. Ez segi artikulua irakurtzen, ez doa zurekin. Bigarren multzoan bazaude, gauza pare bat esan nahi nizkizuke. Batetik, ez dakizu zer ari zaren galtzen. Ziur naiz ez duzula inoiz adorerik eduki zure gogoz liburu bat eskuarte hartu eta irakurtzeko, eta utzikeria hori ezkutatzeko literatura astuna, kulta, zaila eta alferrikakoa dela diozu. Ez dizut sinesten. Berrogei kilometroko auto iladaren erdian egotea nahiago duzula niri kasu egin aurretik? Benetan, ez dakizu zer ari zaren esaten. Jakin ezazu liburuetan datzala giza ja-

kinduria guztia... eta dibertsioa, eta umorea, eta beldurra, eta amodioa. Ez dago gairik idatziz azaldua izan ez denik. Eta zuri, behintzat pertsona izatera iristen baldin bazara, nahitaez interesatuko zaizu gai horietakoren bat. Edo? Orduan, astindu nagiak eta heldu zure gustuen araberako eleberriren bati. Ahaztu err-alitateaz, murgildu fikzioan: egin barre, negar; sentitu ikara, poza. Abiatu paradisu galduetarantz, etorkizuneko garaietatik, suzko pasioetan, misterioz misterio. Agian damutu egingo zara. Kasu horretan ez etsi, badaude-eta benetan jasangaitzak diren liburuak (sekretu bat: best seller askok botagurea ematen dute). Baina litekeena da literatura-
ren ffluran erortzea, eta hori horrela bada, utzi tentazioari zu menderatzen, ez beldurtu inguniko mundua beste era batera ikusten hasten zarenean, edo zure sen-tsibilitateak gainezka egin dizula somatzen baduzu, eta utzi irudimenari begoak sakatzen. Azken ohar oso ga-

nantzitsua: ez itxaron berehalako emaitzik. Oso zaila da aurreneko liburutik irakurketara zaltetzea, gainontzeko bizioekin gertatzen den bezala. Baina posible da pentsatzea: beno, ez da zatar-zatarra ere. Horrela bada, bide onean zaude, eta ez eduki zantalzarik laster batean liburutegitik irten ezinik aurkituko zarela (beste bat, beste bat! oihukatuko duzu, egarritz itota).

Bukatzeko ordua iritsi zait. Badaukat beste hainbat gauza zuri kontatzeko, baina beherako literarioa edukitzeaz salatzen nautenei arrazoiak ematea litzateke. Horregatik, eta argurmentu gutxi bezain kaxkarrak emanagatik, amini bat konbentzitu zaitudart itxaropenez, hurren arte. Gustu baduzu.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, piuraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak



Terra Inargoak



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

12 74 41 12

Publizitatea:

Tr 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarrea
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PusuzirArsa	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martirt
GERENTZIA	Rafa Akarez, M. Angeles Onuoste.
KOLABORATZAILEAK.	Irati Agirreazaldegia, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, Imand Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar, Miren Vallejo.
BANAKETA ARDURADUNA	Imartol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aidizkaria.



W*EI fundazioa
** *f* *daciOn

44 DANOBAT

INGOITI
GRUPO DANOBAT

Icaro, edo honen irudian oinarrituta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Lan Publiko sailak Elgoibarri hain eskuza-baltasunez oparitutako estatua, elgoibartar bat gehiago da dagoeneko. King-Kong-eko pasabidean jarri eta aste gutxira, Icarok jakin du -beste herritanok bagenekien- herriko zenbaitetek, zoritxarrez, besteekiko bandalismoa eta en'espetu falta euren irudi-marka bihurtu dutela.

Hala ere, markatzen, orain dela egun batzuk egindakoa: gizabiderik ez duten zenbaitzuk Esperanza D'Ors eskulturgile ezagunaren lanaren gainean pintura ontzia hustu zuten. Badago gure artean, hala dirudi behintzat, pertsona (?) talde bat, kritika edo inpultso arraro bat sentitzen duena artelan edo monumentu berritu bat ikusten duen bakoitzean: margotu egiten dute. Denok gogoratzen dugu zoritxarreko egun batean San BanoIome elizan (XVII. mendea) eta Foruen Plazaren inguruan egin zutena. Orbaindu egin zituzten, eta nahiago dut pintada horien edukia ez jartzea hemen, baina gogoratzen dudana pintada -eta elgoibartarrok ere gogoratuko duzue- 'detritus intelektual' izugarria zen, urte askotako autismo politikoaren ondorioa. Hau guztiaz gain, kapritxo garestia ere bada, elgoibartar guztioi 1997an 11 milioitik gora kosta zitzaigun kapritxo.

Gainera, izugarria da ondare publikoari eta ingurugiroari egindako eraso hau ekologistek salatzen ez izana. Izan ere, logikoki, botatzen dagoeneko zikinduta dagoen Deba ibaira heldu eta ihaia "koIoreztatu" egingo zuen. Izugarria da gure talde ekologista argiek behar den bezala salatu ez izana. Gure ekologistak, euren lan urriaren arabera biderkaketa egiten duten ekologistak. Oraingoan beste aldera begiratzea erabaki dute, nahiz eta batzuetan Komantxeen begirada zorrotza erabili -ibaian olioia, Karakateko gailurra etab,,,- izan ere, "gerra margoek", indioa egitea gustuko duten jarraitzaile hauek erabiltzen dituzten margoek, efektu optikoak omen dituzte.

Gillermo Garate Urzellai
(Elgoibarko alkatea)

Elgoibarko garapena

Uztaguna da betidanik Elgoibarko — garapen ekonomikoak industria-rekin harreman estua eduki duela.

Azken hamarkadetan krisi ekonomikoa dela medio, une latzak jasan ditugu Elgoibarren, honen ondorioz biztanleen kopurua murriztu egin da. Gaur egun, berriz, krisia pasatu dela-eta, egoera ekonomikoa ona dela esan daiteke.

Gainera, Elgoibarko gizarateak, (erakundeen eskutik), geroari aurre egin dio proiektu batzuk sortarazten (Industrialdea, IMH, etab.).

Hala ere, ezin dugu ahaztu daukagun orografiak, oso polita izan arren, arazo handi bat daukala, eraikitzeke balio duen lur ezarena, hain zuzen.

Argi dago hurrengo urteetan herriaren garapena bi ardatz nagusitan oinarrituko dela: alde batetik etxebizitza berriak eraikitzearen beharra, Elgoibarren lan egiten duen jendea herrian bizi dadin eta gazteak kanpora bizitzera joan ez daitezen. Bestetik, lur industrialaren eskaintza, beharrezkoa delako hemengo lantegiak geratu eta kanpokoak erakartzeko.

Horregatik, aipatzekoa da Udalean prestatzen ari diren proiektuak, bai Albitxurikoa, bai etxebizitza berriak eraikitzeari buruzkoa, goian aipatu ditudan arazoaren aurka bon'okatzeko zuzenduta daudela eta Elgoibarren etorkizuna bermatuko dutela.

Bukatzeko, gustatuko litzaidake gure agintariak egitasmo hauetan lanean jarraitzeko animatzea, elgoibartar gutzientzat onuragarria izango delakoan.

J.R.
(NAN: 15.371.024)

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argilaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: Izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.



11111111

• Basarte auzoan bizi den herritar batek **kartoi eta beira kontenedoreak jartzeko asmorik** ba ote dagoen jakin nahi du.

Mankomunitateko arduradunekin harremanetan jarri gara eta **"inolako arazorik"** ez dagoela erantzun digute. Basarte auzoa sortzen ari den auzoa denez, hasieran, zabor kontenedoreak bakarrik jarri zituzten. Baina gero eta jende gehiago bizitzen hasten den heinean eta eskaria badagoela kontuan izanda, **lehenbailehen kartoi eta beira kontenedoreak jarriko dituztela** esan digute.



KEXAK

• Emakume batek salaketa bat egin nahi du. **"Zapatu arratsaldietan eliz arkupiak eta bolatoki inguruko parkia lotsagarri eoten diaz.** Gaztiak edarixekin juten diaz eta dan-dana alkohol botelaz eta zikinez beteta eoten da. Askotan mezetara juten geranok lekurik ere ez dou eukitzen pasatzeko. Txarre-na da, **egualdi txarra**

daonian, ume txikixak eliz arkupietan ibiltzen diazela jolasian eta a ze gauzak ikusi bihar izatert ditzuen! Lotsagarrixa da inok ezer ez esatia, autoridadia bertan eonda, gainera. Esanda diuet munizipalei, baitxa alkatiari ere, ze egoera eoten dan han, baina inok ez dau ezer eitzen. Aspertuta gaude egoera honekin!"

• Arregitorren bizi den emakume batek honako hau esan nahi du: **"Gure etxe osteko parkea nola dagoen ikustea penagarria da,** Herri Institutuko gazteak ibiltzen dira han eta parkea zeharo apurtuta eta zikina dago. Ez da batere zaintzen. Udalak ez al dauka parke hau zaintzeko asmorik? **San Roken bizi garenok gaintzekoek bezala ordaintzen ditugu zergak, baina hori ez da gero gure auzoan isladatzen".**

• **Artetxen bizi diren 11 eta 12 urteko mutiko batzuek "Ikastolatik Artetxeraino joango den errepedea ez egiteko"** eskatu nahi diote Udalari. **"Dauka-gun zona berde bakaira da.** Elurra egiten duenean bertan ibiltzen gara jolasean eta pena handia emango guke tokl horretan errepede zatar bat eraikiko balitz".

BAI, ESAN?



Aitor Lodoso

Talde Antimilitaristako kidea

Aste honetako deia Elgoibarko Talde Antimilitaristaren bueltan izan da. Gehientsuenek jakingo duzue getra eta bakearen arteko kontrasteak erakusten dituen erakusketa antolatu berri dutela. Baina, seguruena ez duzue jakingo Elgoibarko Talde Antimilitaristako kide gehienak taldea lagatzera doazetik. Hori dela-eta, **Taldeko kidea den Aitor** Lodosorekin egon gara berbetan.


Arrakastatsua izan omen da erakusketa. Zenbat jende pasatu da bertatik? - 1.200 lagun inguru. Eskolekin lanean aritu gara eta bisitaldi gidatuak prestatu dira ikasleekin goizetan. Bislari gehienak ikasleak izan dira, 800 bat, hori interesatzen zitzai-gulako guri, gazteengan antimilitarismoaren inguruko kontzientzia piztea, alegia. Gainerantzekoak kuriositatez hurreratu diren era guztietako herritarrak izan dira.

Gaur egun Taldean zaudetenon azken ekintza izan al da erakusketa? - Bai, azkena izan da baina horrek ez du esan nahi gauza gehiago egingo ez direnik, edo beste jenderen batek antolatuko ez dituenik.

- Taldea lagatzekotan zabiltzatela esan nahi du horrek?

Duela 10 bat urte sortu zen Taldea eta fase asko ezagutu ditu. Hainbat arrazoiengatik taldeak ez du dinamikarik izan batzuetan, eta besteetan, aldiz, oso talde dinamikoa izan da. Agian, gaur egun, dinamika eskaseko fasean gaude baina ezin daiteke esan etorkizunean taldea ez denik berrindartuko. Gu hasi ginen garaian, indar gehienak intsumisioaren borrokara bideratu ziren, mezu antimilitarista gehiegi landu gabe, bai gure kasuan bai mugimendu antimilitarista orohar hartuta. Orain Derrigorrezko Zerbitzu militarra eta gartzela zigorra desagertzean dardenean, mugimenduak zuen zentzu hori galdu egin du. Antimilitarismoaren mezua berreskuratu behar da, nahiz eta inhabilitazioa, gartzela zigorra baino' gogorragoa izan. Gizarteak, hala ere, ez du inhabilitazioaren aurrean erreazionatzen jakin.

- Gauza handiak lortu dituzue. Bai, hori ondo dago, baina oraindik asko dago egiteko. Esparru berriak landu behar dira. Seguru nago borroka hau ez dela amaituko militarismoa eta ejerzitoak desagertzen ez diren bitartean; edo gauza bera dena, gizarte hau goitik behera aldatzen ez den bitartean.



Arrieta
San Bartolme, 18
Tel. 943 74 08 49

karkizano

1111 Franizisko 12-14 - Tel: 943 74 05 49 **1112111111**

POL-POL


ABERNA

San Bartolanne, 19 Tel 943 74 08 74 - ELGOIBAR

Senclabelarrak, naturarep iged

Backydi JnotlahO ntua dek Izan ere, aspaIchan telehat ashotan sendaheIarrei buruzko hainbaf eta hainhats'aio lhus clailezhe. Edergintzari clagohionean ere, gero eta gehiago dira edertzeho produhtuah beIalrez eginda daudela iragartzen dufenak, hobeak edo, gukienez, fiIagarriagoah chrekshoan. fende ashoh jotzen du medihunfze dIferimhbo deitzen denarengana mirari hila. Baina, sendabelarrak gizaka gi-

zaki den une herellh, edo aurretik, existilzen eta ere dira. Ez da gauza berria. Ele mireririk egiten ez duen arren, egia da inguruan dilugun heIararak ego-ki erablhz hainhat gaitz senda daitezheela. Datorren astekhenean, Elgolharho Izarrah gonbirlatuta, do Hortza izango dugu Elgoiberren gai honi buruz herhetan. Berarekin izan gara sendaheIarrei eta hadura orehatuari buruz hainhat pista jahlteho.



Alfredo Elortza zestoarrak Eibarren egiten du lan eta Berrizen bizi da. Botika ikasketak egin zituen baina duela 20 urte inguru sendabelarren munduan sartu zen. Berak esan digunez, "mundu berri bat ezagutu nuen. Egia -;«:— esan, euskaldunok aspalditik erabili izan ditugu sendabelarrak, batez ere baserri inguruan, baina galtzen zegoen ohlтура zen. Eta bene-beneta-ko balioa zuela ikusita, nolabait berreskuratzea erabaki nuen. Edo, gutxienez, nire kontura gaia aztertu eta sakontzea".

Kontua da, hasi eta gutxira beste zeregin batzuk zituela eta, sendabelarren gaia nolabait alboratu egin behar izan zuela orain dela pare bat urte inguru, telebistako aukera atera zitzaion arte. Gaur egun, ETB len "Osasunbideak" saioa aurkezten du.

Medikunfze diernatiboe
Sendabelarrak oso aspalditik

ezagutzen eta erabiltzen dira. Hala ere, gaur egun medikuntza alternatiboa deitzen zaio hauen erabilera-ri. Medikuntza ofiziala badugu eta horren alternatiba bezala aurkezten da bestea, sendabelarrena.

Alfredok esan digunez, "me-


dikuntza mota bat ofizializatu da eta nik uste det hori dela falloa.

Gaixo eta gaixotasun klase asko daude baina sendatzeko moduak ere bat baino gehiago daude".

Hala ere medikuntza ofizialak ez ditu onartzen sendabelarrak eta horregatik jende askok jarrera okerra dauka. Hau da, "jendeak lehenbizi anbulategira jotzen du gaizki sentitzen

denean. Medikuen tratamendua jarraitu eta, hala ere, sendatu ez dela ikustean, azken errekurtsio bezala, sendabelartengana jotzen dute mirariren baten bila, sendatuko dituen belar edo formula majiko baten bila. Eta hor dago falloa. Gauzak ez dira horrela planteatu behar, mirariak ez baitira gertatzen, ez medikuntza ofizialaren bidez ez eta belarren bidez ere".

Elortzaren hitzetan, "sendabelarrak alternatiba teraupetiko bezala oso gomendagarriak dira.



Papaver rhoeas L.

Sendabelarren eta osasunaren artean badago nolabaiteko harreman berezi bat, eder bat, medikuntza ofizialarekin ematen ez dena".

Gaixotasunari aurea hartu

Hala ere, Alfredoren iritziz "kontua osasuna zaintzea da, ez gaixotasuna sendatzea". Horregatik, "elikadura orekatua da bene-benetako alixon'a". Honen haritik, "normalean, sendabelarren kontua gustuko duten pertsonak bizimodu naturalagoa daramate. Filosofia bat dago honen atzetik, eta osasuna daukagunean zaintzen badugu, gero ez gara horrenbeste arduratu beharko gaixotasunen aurrean". Kontua da, gehienok bizimodu nonnala egin eta tripetako mina daukagunean medikuarengana jotzen dugula mina kenduko digun zerbaiten bila. Alfredoren iritziz, aldiz, "sendabelarren gaia ezagutzen duen profesional batek, tripako min hori kentzeko belarrak ematez bat, elikadura orekatua ere jarriko dio gaixoari. Hasieratik heldu behar zaio gaitzari, berriz ere gerta ez dadin. Ez du ezertarako balio mina kentzeak gaixotasunaren jatorririra iritsi ez bagara. Eta elikadura orekatuak bizimodu osasuntsua esan nahi du normalean".

Zer da elikadura orekatua?

Askotan entzuten dugu elikadura orekatua jarraitu behar dugula, denetik jan behar dela. Baina, denetik jateak zer esan nahi du? Alfredok zenbait azalpen eman dizkigu honi buruz. Bere ustez, "denetik jaten dugu, bai, baina gehiegi. Kontua ez da egunero bazkaltzeko eta afaltzeko okela jatea. Edo egunero meriendan txerrikia jatea. Elikadura orekatua denetik jatean oinarritzen da, baina gutxi. Hau da, okela astean behin jan daiteke, txerriki piskat jateak ez digu kalterik egingo, baina ez dugu gehiegikeriarik egin behar. Eta, batez ere, zerealeak, barazkiak eta frutak jan behar ditugu. Eta horietatik gutxiegi kontsumitzen dugu, zoritxanez".

Automedikazioa

Botikara joan eta minaren kontra edozer erosteko ohitura izaten dugu as-

kotan, nahiz eta jakin automedikatzeari ez dela bat ere ona. Sendabelarrekin gauza bera gertatzen da. Hau da, ez dugu pentsatu behar landareak izateagatik arriskurik ez dutela eta edozer har dezakegula nahi beste kantitateetan. Adituen esanak jarraitzea behar-beharrezkoa da. "Sendabelarrak ere botikak dira. Kontuz erabili behar dira eta oso ondo ezagutu behar dira. Noiz jaso behar ditugun jakin behar da, zein kantitateetan hartu behar dugun eta abar eta abar. Gure aitona-amonek oso ondo dakite hori, badakite zer zertarako erabili eta zein kantitateetan. Kontu handiz ibiltzen dira".

Tokiaren araherako sendabeiarrak

Belar guztiek edo gehienek dute sendatzeko propietateren bat. Baserrietan bizi izan diren askok jakin izan dute inguruan dituzten belarrek zertarako balio duten. Gainera, mundua bezain zabala da sendabelarren jakinduria eta Euskal Herrian belar batzuk ezagutzen baditugu, munduko beste edozein txokora joanez gero, beste belar bati buruzko ezagupenak dituztela konturatuko gara. Esate baterako, "hemen berbena asko ezagutzen da eta izugarri erabiltzen. Ba, sendabelarrei buruzko liburu askotan ez dago aipamen bat bera ere ez.

Orain dela gutxi Saharan izan naiz eta ezagutzen ez nituen belarrak erabiltzen dituzte".

Berbena da, hain zuzen, Euskal Herriko sendabelarren artean erregea Alfredoren ustez, "nahi beste izan dugu beti eta aukera asko ematen ditu sendabelar bezala. Erabilpen asko ditu: buruko minakin hasi eta hankako mina kentzeko balio du. Honez gain azeri buztana ere asko gomendatzen dut nik eta mirariak egiten duena pasmo belarra da, baina azken hau kontuz erabili behar da".

Alfredok esandako esaldi batekin geratuko gara, "kontua osasuna zaintzea da, ez gaixotasuna sendatzea". Sekretu-txo bat, Alfredok egunero hartzen du baratxuria gordinik., "baratxuria oso ona da denerako, baita limoi-ura eta alkaxofak ere",

JULI ZUBIZARRETA:

"Burladako sasimedikuak saniazian medikuek ezin zebena"




- 27 urte Burladako sasi-ntedikuarengana joaten.

Bai. Hankak haunditxu jatazen eta hemen ez zien igartzen zer nakan. Burladako sasi-medikuangana jutia erabaki naban.eta harek segiduan igarri zaban. Esan zian hiru urte biharako nitxula saniatzeko. Eta hola-xe izan zan.

- Sendabelarrak erabiltzen dituzte, ez?

- Bai, dana belarrak. Berak esaten dizu zenbat kantidade hartu bihar dozun eta egunian zenbat bidar. Oin urtero bi bider juten naiz. Nik fedia dakat, ze ikusi dot zela saniau nauan ni eta baitxa nere ingurukuak ere. - Familiakoak?

- Bai. Gure aitzak azaleko kanzerra zakan. Burladara jun ginan eta harek esan zion belar batzuk hartzeko eta haren urakin garbitzeko azala. Aurpegiko azala dana altxau, zulu moduan geratu eta gero berri-berrixa aterako jakon, garbixa. Kantzerrik ez zakan. Ahizpa bati, berriz, bularrian demaseko koxkorra urten jakon eta mediku danek esaten ziuene segiduan operatzeke, gaizki zauala eta. Burladara jun zan eta han esan zion infekziva zakala eta operatziakin ez zabala kenduko, hartzeko belarrak. Zortzi hilabetera bularra garbi-garbi zakan, inungo operazio barik.



Euroak pezeta ordezkatuko du. Arduratzan al zaitu?



M. CARMEN RODRIGUEZ

47 urte, etxekoandrea

Ez, ez nau arduratzen. Badi-rudi nahasketa sortuko dela zentimoekin baina prezioan hertan jarriko du zenbatean den guztia, beraz, erraz ohi-tuko garela uste dut.



CESAREO CARUALLO

46 urte, okina


Bai, hasieran kalkulagailua erabili beharko dugu. Bada-kigu 167 zenbakiarekin bi-derkatu edo zatitu beharko dugula baina nahiko zaila egingo da, batez ere, nagu-sientzat.



AURORA RODRIGUEZ

44 urte, etxekoandrea

Bai, piska bat bai. Iruditzen zait nahiko nahastuko gara-la pezetekin ohituta egon eta txanpon berri bat erabil-tzen hasten garenean, batez ere adinekoak.



ANE BEITIA

32 urte, medikua


Pentsatzen dot enterauko gerala nahiz eta hasiera ba-ten piska bat kostau. Gure umiak hasi dia eskolan Eu-roakin hueltaka eta nik bai-no kezka gehiago dauka.



JOSE M. NOGUERO

65 urte, jubilatua

Ez gehiegi, ondo konpon-duko garela uste dut. Gu, gainera, garai batean ibili ginen zentimoekin eta mol-datuko garela uste dut. Ikusteko dago onerako izango den ala ez.



MARTIN ARIZMENDI

22 urte, harakina

Piskat bai, ze hasieran zaila izango da ohitzia. Alde ba-tetik, onerako izango da da-nok txapon berdina eukiko dogulako baina, bestetik, jendia nahastu eingo da.

AHOLKULARITZ A

BIKAIN
ASESORIA



Fiskala lanekoak Kontabilitatea Asegu ruak

ERRENTA AITORPENAK EGITEN DIRA

Antonio Arrillaga, 4 behea - Tel/Faxa: 943 74 45 57 - Tel. mobila: 970 49 72 36

EUROa

Badator aldaketa

Vapatuan, maiatzak 2, Europako 11 estatuk baietz esan zioten euroari, Estatu espainolak barne. Aldaketa guztien aurrean gertatzen den bezala, oraingoan ere aldeko eta kontrako ahotsak entzun dira euroa dela eta ez dela. Aldekoek esaten dute Europar Batasuna konpetitiboagoa izango dela dolarra eta yen-aren aurrean. Beste batzuen ustez, berriz, euroak ez die langileei onurarik ekarriko eta, gainera, estatuek burujabetza galduko dute.

Gure asmoa, ordea, ez da euroaren aldeko edo kontrako jarrerak sortzea, euroari buruzko hainbat galdera plazaratu eta hauei erantzuna topatzen ahalegintzea, baizik.

• Noiz sartuko da indarrean euroa?

1999ko urtarrilaren lean. Egun horretatik aurrera eragiketa guztiak eurotan egingo dira. Denda, taberna etab.etan prezioak eurotan eta pezetatan agertuko dira baina ez ditugu euroak poltsikoan erabiliko, ez bilete ezta txanponik ere. Nahi izanez gero, aurrezki kutxetan ere gure dirua eurotan eduki ahal izango dugu.

• Noiz hasiko gara nominak eta pentsioak eurotan ko-bratzen?

1999tik aurrera enpresek, langilearekin adostu ostean, nominak eurotan ordain ditzakete. 2002ko urtarriletik aurrera guztiak hasi beharko dute eurotan ordaintzen.

• Noiz arte erabili ahal izango da pezeta?

2002ko urtarrilaren lera arte.

Data horretatik aurrera pezeta, bilete eta txanponetakoak, desagertzen joango da 2002ko lehenengo sei hilabeteetan, eta azkenean, urte horretako uztailearen lean, legezko moneta izateari lagako dio. Ordurako, den-denak hasita egongo gara euroa poltsikoan eramaten.

• Zein balio izango du euroak?

Euroaren balioak aldaketaren bat jasan dezake, baina gutxi gorabeherako bal ioa 167 pta.koa da.

• Nolakoak izango dira bileteak eta zenbat izango dira?

7 bilete berri egongo dira: 5 eurokoa, 10 eurokoa, 20koa, 50ekoa, 100ekoa, 200ekoa eta 500 eurokoa.

Diseinua bera izango da Europar Batasuneko 11 herrialdeetan eta guztietan Europa-ko Batasunaren bandera, Europako mapa eta Europako Banku Zentralaren siglak azalduko dira.

• Eta txanponak?

S txanpon ezberdin erabiliko ditugu: I, 2, 5, 10, 20 eta 50 zentimokoak, eta euro I eta 2 eurokoak. Herrialde guztietan 6.(anponaren alde batek irudi bera izango du eta beste aldean, Estatu bakoitzak erabakiko du zer irudi agertuko den.

Hortaz, 2002ko tutarrilaren letik aurrera, euroak pezeta desagertarazten duenean, aspaldi ahaztutako zentimoak erabiltzen hasi beharko gara. Beraz, kontuak egiterakoan, dezimalekin zenbatzen ohitu beharko dugu.



ISPILUARI

BEGIRA



Aukera Inmobiliarlakoak

AUKERA

inmobiliarlakoak

- **Aukeratu Elgoibarko txoko bat bizitzeko.**
- San Roke edo Poligona, trankilak dialako eta herrixan bertan egon gabe gertu daudelako.
- **Noren azalean bizi nahi zenuke egun batez?**
- Bete pentsatu izan dot gustauko jatala Sisi-ren epukako soineko luze bat jantzi eta Vienan, dantza batera jun eta konpainia onakin balsa dantzatzia.
- **Norekin geratuko zinateke gustura igogailu batean?** - Michael Douglas-ekin.
- **Eta zer egingo zenuke?**
- Berba seguruen, nahiz eta ezer ulertu ez.
- **Zein bista izan nahi zenuke zure etxeko leihotik?**
- Itsasua, lasaitasuna ematen dia.
- **Etxea apaintzeko estiloa?**
- Nahiko klasikua gustatzen jata.
- **Zein da zure txokoa etxean?**
- Salan, sofako leku konkretu bat da nere txokua.
- **Elgoibarko zein eraikuntza botako zenuke?**
- King-Kong-a. Igual txikixaua balitz politxa izango litzake baina dauan bezela...
- **Eta zein ekarriko zenuke kanpotik?** Ekarriz ez, lehen zeuden batzuk mantenduko nitxuzke: oin King-Kong-a dauan lekuan zauana, Ubitarten zauan palazio bat eta Santa Ana kaleko Kutxan zauana.
- **Zein hiri iruditzen zaizu estetikoki polita?**
- Asko gustatu zitzaidan Amsterdam.
- **Momentu alaiak gogorarazten dizkizun abestia?**
- Adamon abesti danak.
- **Zein izan da gizakiaren lorpenik haundiena?**
- Ura eta argixa etxera ekartzia.
- **Zortean, kasualitatean edo ahaleginean sinesten duzu?** - Ahaleginean, Ahalegintzen denari etorriko zaizkio zortea eta kasualitatea.
- **Biziorik?** - Ebakixa hartzia eta mendira jutia.
- **Zein gaitasun izan nahi zenuke?**
- Pianua jotzen jakitzia.
- **Zein esperientziari irekiko zenizkioke zure bizitzakoa atea?** - Atzerrira jungo nintzake gustura hizkuntzak ikastera eta, baitxa ere, ONG batian edo, kanpoko jendiari laguntzera.

• Lapurreta kiroldean batean

Joan den astearte goizaldean, lapurreta egiten zuten Santa Ana kaleko Muxi kiroldean. Itxura denez, kanpoko ateko pertsianaren zerraila bortxatu eta palanka eginez, atea ireki zuten. Lapurrek kirol material ugari hartu zuten. Muxi kiroldekoek esan digutenez, "Lapurrek bazekiten zer hartzen zuten, markako zapatilak, aerobikeko erropa, txandal garestiak, gizonezkoen alkandorak etab. Edozein merkadilotan erraz saltzeko erropa". Dagoeneko salaketa jarri dute Ertzantzian eta kalkulu zehatzik egin ez badute ere, milioi batetik gorako kalteak sortarazi dizkietela uste dute.

• AEKnapadarako deialdia

Elgoibarko AEK Euskaltegiak, datorren asteburuan Urdiainen (Nafarroa) izango den AEKnapadara joateko animatu nahi ditu euskaltzale guztiak. AEKnapadara euskara ikasten ari direnen, euskaldunen eta euskal kulturaren adierazpideak ezagutu nahi dituztenen topagunea da. "Euskara ala ez gara" lelopean izango da aurtengo AEKnapada. Ekitaldi ugari egongo dira: euskalgintzari eta txirindularitzari buruzko mahainguruak, mendi irteerak, hitzaldiak, erakusketak, bideo emanaldiak, folk-rock eta trikiti kontzertuak,...

• Karta jokoak Jubilatutxean

Domekan hasita, hilak 10, mus, tute, briska, punto eta seieta jokatzeko aukera izango du nahi duen guztiak Jubilatutxean. Lehiaketan parte hartzeko igandea, hilak 10, baino lehen izena eman beharko da zuzendaritzan. Irabazleak eskualdeko bigarren fasera pasatuko dira.

Ekologiaren hamabostaldial izango da Haizea Emakume Taldearen eskun

Ohitura ez kutsakorrek zabaltzeko asmotan antolatu dute

Maiatzaren 12tik 22ra bitartean, 'Ekologiaren Hamabostaldia' izango da Haizea Emakume Taldeak antolatuta. Taldeki-deen esanetan, helburua eguneroko bizitzan eta, batez ere, etxe barruan, ekologiarekin zerikusia duten gaietan kontzientzia sortzea da. Honela, maiatzaren 12an, astearte, "Ernakumea eta Ekologia"ri buruzko hitzaldia emango dute Bilboko Ingurugirorako Heziketarako Zerbitzuko Susana De Felipek eta Alejandra Sanehez bilgoiek. Maiatzaren 19an, berriz, "Etxeko ekologia"ren inguruko gorabeherak aztertuko dituzte bi adituok. Etxean erabiltzen diren produktuen erreziklaia, garbigailua zenbat aldiz

erabili behar den, produktu kutsakorrek zein diren, ingurugiroari kalte egiten dioten arazoak topatu eta antzerako gaiak buruz egingo dute berba bi adituek. Bi hitzaldiak Kultur Etxean izango dira 19:00etan. Ostegunean, hilak 14, Ongarri Zine Klubarekin elkarlanean, "Dersu Uza la" filmea emango da Herriko Antzokian. Maiatzaren 16an, Txingudiko badiara txangoa egiteko aukera izango dute nahi duten guztiak. Izena emateko 74 30 60 zenbakira deitu arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartean. Maiatzaren 21ean, osteguna, "Kontsumoa beste kultura batzuetan" izenburuko ikusentzunezkoa emango da Kultur Etxean

arratsaldeko 19:30ean. Zi klari amaiera emateko, hilaren 22an Pako Iriondo Euskal Mendizaleen Federazioko presidenteak, eta Inma Mugerza biologo elgoibartarrak "Mendiaren erabilera eta erasoak" aztertuko dituzte. Hitzaldi hau Morkaikoren Iaguntzarekin antolatu dute. Hitzaldi guztietan eztabaidarako aukera izango da.



Talde Antimilitaristako kideek lantalde berria eratze delakfila egin dute

rralde Antimilitaristako kideek prentsa ohar bat helarazi digute, gaur egunera arte aritu direnak taldeko dinamika lagatzeko asmoa baitute. "Elgoibarraren antimilitarismoaren inguruan lan egin nahi dutenei dei zabal bat egin nahi diegu, maiatzaren 16an, larunbata, Kultur Etxean, eguerdiko 12:30ean izango den bilerara etor daitezten". Bilera horretara joaten direnei orain arte nola funtzionatu duten azalduko zaie, "eta nahi izanez gero, laguntzeko prest ere bagaudela adieraziko diegu. Hala ere, eratzen den talde berriak berak ikusiko du nola antolatu nahi duen bere dinamika". Gaurdaino Talde Antimilitaristan jardun dutenek, hainbat urte daramatzate anti-

militarismoaren inguruan lanean. Urte hauetan denetik egin dute: bizikleta martxak, hitzaldiak, manifestazioak, kontzertuak, Udalean mozioak aurkeztu, 'hotz-greba' kanpaina mantekin, ikastetxeetan proiektuak aurkeztu eta landu etab. "Badakigu gizarteari buelta handirik eman ez diogula, baina merezi izan du. Sarritan, isilean, zarata handiegirik atera gabe, baina heziketa eta kontzientziazio lan inportantea egin dugulakoan gaude. Hala ere, intsumisioaren gaia beste fase batean sartu dela ikusten dugu eta fase berri honek indar berriak behar ditu". Hortaz, oraindik egiteko asko dagoenez, jendearen inplikazioa eskatu nahi dute eta bilerara ager daitezten animatu.



Haritz Dantzari Taldekoak eta Glurenseko gaiteroak elkarrekin aulituko dira Galiziarren jaietan

"Dia Das Letras GaLegas" jaiak ospatuko dituzte Elgoibarko galiziar guztiek hilaren 9an hasita 19ra biartean. Bihar, hilak 9, bazkaria eta chaves tiraldia izango da Urasandiko egoitzan Galiza Etxeko bazkideentzat. Jai egitarauko ekitaldi gehienak, ordea, datorren asteburuan ospatuko dira. Hilaren 15ean, 16an eta 17an, ohiko jaki eta edarien dastaketaz gain, gaiteroen jardunak eta dantzaldiak izango dira Herri Eskolako gunean. Aipagarria da, aurten Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena dela-eta, "O Carballino" Ourenseko Gaita Bandak emanaldi berezia eskainiko duela hilaren 17an, igandea, Haritz Dantzari taldekoekin batera. Goizeko 9:30ean Udal Txistulari Taldekoekin batera kalejira egingo dute Carballino Taldeko gaiteroek. 10:30eko mezaren ostean, Plaza Handian dantza ikuskizuna hasiko da gaiteroek eta txistulariek lagunduta.

• 1MHk aldizkari hat kaleratu du

Makina Erreminta Institutuak "Tekno" izeneko aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu berri du gure inguruko enpresek, erakundeek eta hezkuntza zentzuek bere eginkizunen berri zebatzat izan dezaten. Argitalpena hiru hilabete behin kaleratuko da eta 8 orrialdez dago osatua. Lehenengo zenbakian, Alberto Ortueta Makina Erreminta Fabrikatzaileen Elkarteko zuzendari nagusiari egindako elkarrizketa irakur daiteke beste artikulu batzuekin batera.

• Enpresa zuzendarientzako ikastaroa

BIC-BernIan, SPRI eta APD erakundeek bultzatuta, Deba Behoko enpresetako zuzendarientzako hezkuntza ikastaroak antolatuko dira urtean zehar. Marketing estrategikoa, sairnenta planifikazioa, pertsonalaren zuzendaritza eta internazionalizazioa bezatako gaiak landuko dira. Lehenengo ikastaroa, Marketing estrategikoa eta salmenta planifikazioari buruzkoa, hilaren 15ean hasi eta ekainaren 12ra arte luzatuko da. Informazio gehiago jasotzeko 20 07 26 zenbakira deitu.

• 74 hurrek egingo dute Lehen Jaunartzea

Domekan, hilak 10, Lehen Saunartzeko meza izango dira Parrokian. Aurten 74 neska-mutilek egingo dute Lehen Jaunartzea. Bi elizkizun izango dira, goizeko 11:00etan Lehertengoa eta eguerdiko 12:30ean bigarrena. Meza baikoitza ordubete inguruz luzatuko da eta ohiko mezaren antzeko elizkizuna izango da.

• Katekistek saldutako errifak

Apirilaren 30ean zozketatu zen Eibarren katekistek saldutako errifa. Don Pedro Zelaia misiolari eta idazlearen omenez ateratako errifa zen. Zenbaki saritua 17.643 izan da eta saria bizikleta bat izan da. Bigarren zenbakia 04.765 izan da eta jabeak otar eder bat irabazi du. Bi sarien jabeak agertu dira, bata Eibarrokoa da eta Bilbokoa bestea. Elgoibarren ederki saldu omen ziren errifak eta horregatik, katekistek eskerrik beroenak luzatu nahi dizkie errifak erosi zituzten guztiei.

• Eihar-Gasteiz autopista dela-eta

Udan hasiko diren Eibar-Gasteiz autopistaren eraikitze lanen inguruan komunikatu bat kaleratu du Debaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Elkartek. Hauen esanetan, "Eibar-Gasteiz autopistarekin enpresariak aberastu egingo dira herritarren kontura. Obrak hastera doazela esaten dutenean, Maltzaga eta Bergara arteko zatia hastera doala esan nahi dute. Oraindik autopistarentzako finantziazio pribaturik ez dute lortu eta gastuak, beraz, herritarren kontura doaz". Gazte Asanbladakoek emandako datuen arabera, zati honek 24 milioiko kostua izango du, "eta Diputazioak 18 milioi besterik ez ditu. Zergak igoko dituzte agian?". Autopistaren kostu osoa 100 milioikoa da komunikatuan azaltzen denez, "baina negozio hauekin gertatzen den bezala, azkenean %20 gehitu beharko zaio". Progresoaren izenean, "autopista honek Deba bailarako fauna, landaretza, nekazal lurra etab. suntsiko ditu" Gazte Asanbladakoek ustetan. "Progresoa nekazal inguruak eta herriak bultzatzea da eta ez autopista txikitzaileak eraikitzea. Bailara honek ez du behar eta ez du nahi zuen autopista".

• Udako harnetegiak euskara ikasleentzat

DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitateak, Gipuzkoako gainerantzeko udal euskaltegiekin batera, udako harnetegietan parte hartuko du. Zeraingo aterpetxean mintzamen lantzeko aukera izango du nahi duen guztiak uztailaren letik 15era bitartean, asteburuak barne. Matrikularen zenbatekoa 37.000 pta.koa da eta 5. urratsa gaindituta edukitzea beharrezkoa da. Urtean zehar udal euskaltegiaren batean ibilitakoek izango dute barmetegira joateko Iehentasuna. Honez gain, DEBABA Udal Euskaltegiak Elgoibarren bertan bi ikastaro emango ditu uztailen. Bat, EGA ikastaro berezia iraileko azterketa prestatzeko eta bigarrena, bost orduko ikastaro trinkoa euskalduntzeko. Barnetegira joateko zein ikastaroetan izena emateko 74 27 31 zenbakira deitu.

95etik 97ra kargu politikoan dietak bikoiztu egin direla salatu du HBk

95ean 700.000 pta. gastatu ziren; 97an, berriz, 1.630.000 pta.

Eigoibarko Herri Batasunako Pello Mendizabalek asteartean, hilak 5, prentsaurrekoan adierazi zuenez, dieta, bidaia eta garraio gastuei dagokien partida "azken urteotan asko handitu dela detektatu dugu". HBko zinegotziak zenbait datu eman zituen. "1995ean, adibidez, kargu politikoan gastuak 700.000 pta.koak izan ziren. 1996an igoera handi xamarra egon zen. Gastuak 1.000.000 pta.ra igo ziren. 1997an, beste igoera handi bat egon zela ikusi dugu, gastuak 1.630.000 pta.koak izan baitziren". Mendizabalen usteetan, ez dago igoera hau justifikatzen duen gertaerarik. "Elgoibarrek ez du azken bi urteotan aldaketa nabarmenik izan kanpo harremanak eskatzen dituzten ekimenei dagokienean. Gainera, igoera nabarmen honen notizia kalean jakin dugu". HBkoek dietei dagokien partida aztertu dute eta "gastu handienak alkatearenak direla



HBk bere abokatuen esku laga du dieten inguruko auzia.

ikusi dugu". Adibide batzuk eman zituzten: "kilometrajea gehiegikeriak detektatu ditugu. Udaletxetik Sigmara eta handik IMHra, 30 km.ko kilometrajea kobratu izan du, edo Elgoibartik Donostiara 140 km. Bazkarien fakturak ere ez dira eguneroko menuenak. Datu nahiko eskandalosoak iruditu zaizkigu".

Ido honetatik, HBkoek Haziendako buru den Isaak Loiolari gastuen fakturen fotokopiak eskatu zituztionez

gai hau sakontzeko asmoarekin. "Loiolak ukatu egin zigu eta hori dela-eta, eskaera formala egin genuen. Hala ere, ezetza jaso dugu berriz". Mendizabalek Aldundian antzeko kasu bat badagoela alpatu zuten. "HBk epaiketara eramanean du Aldundia eta arrazoia eman dio epaileak. Kasuak ez dira berdinak baina informazioa izateko eskubidea badugula pentsatzen dugu". Udalean txosten bat badagoela adierazi zuen Pello Mendizabalek, gastuak jasotzen dituenak. "Txosten hori eskuratzeko eskubidea daukagula uste dugu".


HBkoek abokatuen esku utzi dute kasua. "Ez dugu ulertzen zergatik ukatzen zaigun informazioa. Kontuak garbi badaude eta ezer ezkutatzeorik ez badago, zeren beldur da Isaak Loiola?". HBren ustez, prozesu legala bezain inportantea da horrelako gauza bat publikoki salatzea, "herritarrek eskubidea baitute euren dirua zertan xahutzen den jakiteko".



• Esther Lizarriturri, Wrol Patronatuko administraria

Esther Lizarriturri elgoibartarrak ateratu du Udal Kirol Patronatuko administrari lanpostua. Aipaturiko lanpostuak izaera finkoa du eta deialdia egin zenean 85 pertsonak eman zuten izena. Hala ere, gutxiagok egin zituzten azterketak. Euskara frogara, esaterako, 38 lagun zeuden deituak eta 11 baino ez ziren aurkeztu. Oposaketan gainontzeko pun-

tuak temarioa, informatika eta azterketa praktikoa izan ziren. Azkenik, elkarrizketa pertsonala egin zuten eta bukatzeko meritok baloratu ziren. Esther Lizarriturri gailendu zen besteen aurrean eta berak lortu zuen puntuaziorik altuena. Esther izango da, beraz, aurrerantzean Kirol Patronatuko administraria.



AnchCistegui s.a
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 943 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso Industrialdea
Olasope, 5
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 - 943 74 23 71



MEGIMMUSiI

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAXA

MIREN PEÑA:

"Gaur egun laguntza handiak datoz Europatik baserritarrentzar"

Miren Peña debarrak 44 urte ditu eta 1975 urtetik dago lanean Nekazal Bulegoan. Deban zegoen egoitza hasieran eta gaur egun Elgoibarren, Merkatu Plazan kokatzen da. Hilabete honetan Europatik datozen laguntzei buruz zertxobait gehiago jakiteko asmoz berarekiz hitz egin dugu. Izan ere, baserritik bizi direnentzako laguntza eskaera egiteko epea irekita dago maiatzaren 29ra arte.

—Dirulaguntzak tramitatuzen dituzu, ez?

- Bai, batez ere Europatik datozenak eta ganadua duten baserritarrei zuzendutak daudenak. Badaude beste laguntza batzuk, esate baterako, ikuilua konpontzeko eta abar, baina horiek ez ditut nik eramaten.

- Zein laguntza daude gaur egun?

Europatik larreko ganaduantzako, ardi eta ahuntzentzako eta "Alta montafia" bezala ezagutzen dena daude. Azken hau da, hain zuzen, egunotan tramitatzen ari garena. Eskaerak egiteko epia

maiatzaren 29an amaitzeko da eta komeni da baserritarrek honen jakinian egotia.

—Nori daude zuzenduta?

- Batetik, biharrezkua da baserritxik bizitzia, hau da, diru sarrera inportantiena baserriko produktotik jasotzia. Gainera, nekazal aseguru soziala ordaindu eta errenta aitortpena presentau bihar dute. Horiek dira oinarritzko baldintzak.

—Hala ere, laguntza desberdinak emango dira, ezta?

- Bai, hor ere aldia dao batetik bestera. Puntuazio bat ematen da kondizio batzuen arabera. Baserritxik bizi dizen daneri ematen jakue laguntza baina ez berbera. Esate baterako, zonak daude. Deba eta Mutriku 'Zona 1' dira eta 10 puntukin puntuatzen da. Eibar eta Elgoibar 'Zona 2' dia eta 20 puntu ematen dia. Hemen ez dao 'Zona 3'rik baina Soralueze 'Zona 4' da. Hau da, zenbat eta pendiza eta mendi gehixoa egon, orduan eta puntu gehixoa ematen dia.

— Zona ez ezik, aldapa ere kontatzen al du?

Bai, asko. % 0-15 bitarteko pendiza daukaten kasuan 10 puntu; %15-25 bitartekoa daukaten kasuan 20 puntu eta %25etik gora daukatenean, 30 puntu.

- Baserritik errepidera zein distantzia dagoen ere garrantzitsua omen da.

-Bai. Esate baterako, 0,5 km. azpitxik badao puntu

bakarra ematen da; 0,5-1 km. artian bi puntu; 1-2 km. artian 3 puntu; 2-3 bitartian 4 puntu eta 3 km. baino gehixoa badaude 5 puntu. Kaminua segun eta zela dauden ere kontuan hartzen da eta mendi-bidia bada, 5 puntu ematen dia.

—Familikideak eta ganadukopuruak ba al du eraginik?

Bai, noski. Segun eta zenbat pertsona bizi diran familia horretan baserriko diru sarreretatik puntu gehixoa edo gutxiago ematen da. Eta, zenbat eta ganadukopuru gehixoa izan, orduan eta puntu gehixoa, nola ez. Hemen puntuatzen du sei hilabetetik gorako danak: larreko eta esnetarako ganaduak, zezenak, idiskoak, ahuntzak eta ardiak, bihorrak...

- Zein kopuru bitartean izaten dira laguntza horiek?

- Batez beste 30.000 pezeta eta 300.000 pezeta bitartean izaten da. Hauek laguntzak dira eta honeia uler-tu bihar dira baina, garai batean, ez zegoen horrelakorik eta beti etortzen dira ondo baserritarren ekonomiarako. — Baserritarrek ba al dute laguntza hauen berri?

- Bai, Diputazivak karta bana bidaltzen diete baserrira. Aurten, gainera, baserritar asko jubilatzen da eta komeni zaie gai honen inguruan gertatuko diren aldaketan berri izatia.



San Isidro, baserriarren jai haundia

Maiatzaren 15ean Arraten ospatuko da San Isidro, baserriar guztien jai-eguna. Izan ere, gure baserriarrek aukera gutxi izaten dituzte baserriko lanak alde batera laga eta ospakizun berezietan umoretsu aritzeko. Horregatik, era honetako jaiak benetako balioa dute hainbat eta hainbat baserriar elkartzeko aukera egoten baita. San Isidro egunez Arratera hurreratzeko den edonork, makina bat jende topatuko du bertan, jai-giroan alai, kantuan edo dantzari, idi probak ikusten....

Gaur egun Deba Bailarako herriarrek Arraten izaten dute topalekua. Izan ere, 1980 urte bueltan Eibar, Elgoibar eta Soraluzekoak Arraten elkartzen hasi ziren. 1992an, berriz, DEBEMENek bultzatuta, aurreko herriei Mendaro, Deba eta Mutriku baserriarrek gehitu zitzaizkien. Hala ere, garai batean Elgoibarren egiten zen ospakizuna.


Elgoibarren ospatzen zenean

Jakin ahal izan dugunez, gainera, lehenbizi prozesioa egoten zen. San Isidroren irudia San Lorentzoren egoten zen eta egun borretan, herriko kaleetan prozesioa egin eta gero, Parrokiara sartu eta meza izaten zen. Gero, dispositiba emanaldia egoten omen zen, beti ere baserri gaien ingurukoa eta azken bost minutuetan zezenketen irudiak botatzen zituzten. Jarraian, nola ez, bertsolariak.

Basarri eta Uztapide handiek makina bat saio egin izan zituzten Elgoibarren.

Ondoren, nola ez, bazkari eder baten bueltan elkartzen ziren, guztiak gizonetzkoak, Aldapako Juli izan ezik. Menua ez zen nolanaikoa izaten, begira bestela: baba beltzak azarekin, odolostea eta txerri sahieskia eta bildotsa. Horren ostean kafe konpletoa hartzen zuten askok: akeita, txola eta txokorra (kafea, kopa eta purua) eta alai-alai, bertsolariekin belarriak gozatu eta Gelatxorekin erromeria izaten zuteri.

Gauzak ez dira gehiegi aldatu ordutik. Akaso menua zertxobait desberdina izango da, baina, ostantzean, jende aldetik nahi beste izaten da, emakume asko tartean, hori bai, eta idi probak, bertsolariek eta erromeriak bertan jarraitzen dute. Ondo ibili San Isidroan!



Idi-demak eta Baltzola Anaiak izango dira San Isidro egunean Arraten.

EGITARALIA

11:00 MEZA, Lizarreta, Narbaiza, Egileor eta Ziarda bertsolarien eta Baltzola Anaiak trikitilarien partehartzearekin.

JARRAIAN: Getariko TXAKOLIN eta bailarako GAZTA DASTAKETA.

12:30 ZELAI HARRIJASOTZAILEAREN ekitaldia.

14:00 ANAIARTEKO BAZKARIA Kantabria jatetxean. Bazkal ostean, sei herrietako aitona-amona nagusienei opariak banatuko zaizkie eta mahaikideen artean sari bat zozketatuko da.

JARRAIAN, Lizarreta, Narbaiza, Egileor eta Ziarda bertsolariak eta Baltzola Anaiak.

17:00 IDI-DEMAK Deba Beheko partaideekin: Soarte, Altxubarren eta Ixama.

JARRAIAN: SARI BANAKETA:

1. saria: 135.000 pezeta eta DEBEMEN elkartearen garaikurra.

2. saria: 120.000 pezeta eta INEKO kooperatibaren garaikurra.

3. saria: 110.000 pezeta eta ARRIZABAL enpresaren garaikurra.

Lehenengo 15 iltzeak azkarren egiten dituenarentzat UNZUE pentsuak emandako SARIA izango da.

1LUNTZEAN, berriz, xanpaina botila kaxa eta ardo botila kaxa zozketatuko dira.

ZELETA baserria

San Migel auzoan kokatzen da Zeleta baserria. Negutegi handiak ditu. Hori du bere ezaugarri nagusia. Hiru pertsona bizi dira bertan gaur egun. Anselmo Salazar da horietako bat eta berarekin izan gara euren bizimoduaren berri izan eta Euskal Baserri labela zertan oharritzen den jakiteko.

Zeleta baserrian betidanik bizi izan dira baserrik. Anselmok edo `Moli`k esan digunez, dela 20 urte inguru "negutegiekin jolasean hasi ginen". Jolasean esaten duenean, garai hartan baserriko lanetik ez ezik, kalean egindako lanetik ere bizi zirela esan nahi du. Hau da, `Moli`k tailer batean egiten zuen lan, "eta, bide batez, negutegiak ipintzeaz bat, merkatua nola zegoen aztertzen hasi ginen. Ea posible genuen ortutik ateratzea bizimodua". Kontua da, hamar urte jardun zutela "jolasean" eta orain dela beste 10 urte erabaki zutela lantegia laga eta baserrik bizitzea oso osorik.

Enpresa bat

Molik ez du batere damurik. Oso gustura bizi da baserrian bera kaletarra den arren. "Bizitzan zehar ideal batzuk garatzen dituzu eta baserrian bizitzea barru-barrutik ateratzen zaidan filosofia da. Bizitzeko era bat da, ni erabat betetzen nauena". Goizean goiz jaiki eta ortuak garaztatu, hazitegiak begiratu, produktua jaso, aukeraketa egin eta enbasatu, banaketa egin.... "Guzti-guztia, hasieratik bukaerara arte egiten dugu baserrian. Hazi batzuk ere guk geuk hazten ditugu, esaterako azelga eta Gernikako piperra". Izan ere, Zeleta enpresa bat dela esan daiteke, "gauza batean desberdintzen gara. Inbertitzen dena kontuan izanik, irabaziak ez dira maila berean ikusten. Enpresetan, aldiz, gauzak ondo badoaz irabaziak handiak izan daitezke".

Lurraz maiteminduta

Bada beste ezberdintasun bat: ordutegia. `Moli`k azaldu digunez, "urteko batez beste 3.500 ordu inguru sartzen ditugu". Baina berari berdina zaio, ez du faltan botatzen jaiegunik. "Nire tomateen artean zorionsua naiz. Lu-



Euskal Baserri kalitate labela

Zeleta baserriko produktuek *Euskal Baserri* kalitate labela daramate. Bertoko produktuek daramaten ezaugarria da. - Jendeak jakin dezan erosten duena bertokoa dela, ez kanpotik ekarria. `Moli`ren esanetan, "jendeak gero eta garrantzi handiagoa ematen dio ezagunak dituen baserrietan hazitako produktua erosteari. Gutxienez badaki etxean jango duen tomatea inguruko baserrian hazitakoa dela, osagarri kimikorik gabe, maitasunez eta mimoz hazi dutela. Eta hori gero eta gehiago baloratzen da, zorionez".

Me.....600000.....000000011000.....

rraz maiteminduta nago eta nahikoa zait negutegian sartu eta Ietxua artean ibiltzea zorionsu izateko".

Urteen eraginez ikasi du `Moli`k gaur egun dakien guztia, "Iandareak izaki bizidunak dira eta horregatik, izugarri igartzen dute nola zaintzen dituzun. Mimatu egiten badituzu, maitasuna eskaintzen badiezu, duda barik askoz ederragoak aterako dira. Gaur egun, letxuaren orriek zergatik duten kolore berde argiagoa edo nagoa bereizten badakit. Eta hori, urteek irakatsi didate, eta landareek beraiak, noski". Kale umea izanik, harri-garria da gizon honek baserriko bizitzan nolako pasioz hitz egiten duen entzutea.

ZELETA

Auzoa: San Migel

Bizilagunak: Begotia San

Martin, 65 urte; Arantxa

Berasaluze, 39 urte eta Anselmo

Salazar, 45 urte.

Lir hodadura: 15 hektarea.

Esplotazioa: Negutegiak dituzte eta baserrik bizi dira.

IREETA gainean bc5A9

ELGOIBAR-MADARIXA-OTARRE-LASTUR-MENDARO-ELGOIBAR

DISTANTZIA: 35 km.
IRAUPENA: 2h30
11. ZAILTASUNA: erdikoa



Eskuman, San Lorentzoko ermita ikus dezakegu.

Larraskanda baserriaz en panoramika.

■ **1** Elgoibarren abiatuta San Lorenzo aldera joan behar da lehenik eta behin. San Lorentzoko ermita pasatu eta bidea jarraitu behar da azken baserrira iritsi arte, Antxolara hain zuzen.

■ **2** Antxola baserri atzetik gora dagoen pista jarraitu behar da ondoren Azkaratera iritsi arte.

■ **3** Azkaratetik Madarixara joan behar da eta handik aurrera segitu. Madarixatik kilometro batera bidegurutze bat dago eta han ezkerreko bidea hartuko dugu. Bidegurutzean txartel bat dago Atxuri nekazaturismoko baserria seinalatzen duena. Bide horri jarraitu behar diogu zementozko pistatik behera.

■ **4** Atxuri ingurura heltzean bigarren bidegurutze batekin egingo dugu topo. Ezkerretik Atxuri baserrira joaten da eta eskumatik Larraskandara. Guk Larraskandara daraman bideari helduko diogu. Larraskandara iritsi orduko ordubeteko ibilbidea egina izango dugu.

■ **5** Larraskandatik gora hartuta, Otarre ikusiko dugu, antena bat daukalarik goian. Antenara igoko gara. Otarren ikusmira ederra, paisaia zoragarria dago eta horregatik merezi du bertara joatea. Haia ere, Otarrera igo garen bide beretik jaitsiko gara berriz Larraskandara.

■ **6** Larraskandan gaudela, etorri garen bidea hartu baina, gorantz joan beharrean, beherantz egingen duen pistatik jarraituko dugu Lastur bailara alde-rantz.

■ **7** Aldapa handia dago pistan behera eta hortik segituko dugu Ugarteberri izeneko baserrira iritsi ar-



te. Puntu horretan zementozko pista amaitu eta asfaltozkoa hasten da. Ezkerretera jarraituko dugu eta harrobi batetik pasatuko gara.

■ Bidegurutze batera iristean, txartel batek Lastur-Elgoibar eta Itziar markatzen dituela ikusiko dugu. Lasturrera hartuko dugu eta bertara iritsi orduko 19 km.ko ibilbidea izango dugu egina.

■ **9** Aurrera jarraituz Sasiolara ailegatuko gara. Errepide Nazionalera iritsi gara, 634 errepidera. Hortik zuzenean Elgoibarrera daraman bideari helduko diogu.

Informazioa:
Andoni Etxeberria

25 urte dituen elgoibartar hau egunkariak saltzen dituelako da ezaguna gure artean. Hala ere, Jokin Martinezek oso bestelako afizoak ditu, antzerkia eta argazkilaritza. Antzerki munduan lau urte daromatza, Azpeitiko Antxieta taldeko kidea da. Argazkilaritzari dagokionean, hor ibiltzen da, ikastaro batean eta bestean, kanzera hartu eta edozein irudi izozten. Joan den ostira-lean Jokin Herriko Antzokian ikusi ahal izan genuen, "Hamar minutu gauerdirako" antzezlanetan. Antzokia jendez gainezka ze go en.

JOKIN MARTINEZ

"Telebistak ez dauka antzerkiaren magiarik"

— **Zer moduz herritarren aurreko estreinaldia?**

- Bueno... Jendea hasi zanian sartzen eta gehienak ezagunak zirela ikustean nahiko urduri jarri nintzen. Zure herri-egoteak urduritasuna gehitzen du baina gero gustura sentitu nintzen. Hasierako tentsioa kenduta, disfrutatu egin nuen. Gainera, jendeak esan zidan gustura egon zela eta hori eskertzekoa da.

— **Lau urte daramatzazu Antxieta taldean.**

- Bai. Betidanik gustatu izan zait antzerki mundua. Edurne Lasari komentatu nion eta berak esan zidan Azpeitin bazegoela Antxieta izeneko talde bat. Beraiegana joan nintzen eta gaur arte.

— **Eta hasieratik hasi zinen antzeztzen?**

- Antxieta talde amateur-rra da da baina horrek ez du esan nahi gutxieneko ezagutza bat izan behar ez duzunik. Ikastaroak egin izan ditut an-

tzerkiari buruzko zenbait gauza jakiteko, antzezenari buruzko teknika batzuk, espresioa, ahotsa, kaleko antzerkia... Hala ere, batez ere praktikarekin ikasten da.

- **Telebista ezagutzen duzu. Goenkale parte hartu zenuen.**

- Bai. Gure taldeko neska bat, Idoia Uranga, *Goenkaleko 'Beatriz'* da. Talde osoak egin izan ditugu kasting-ak eta *Goenkale* edo *Benta Berrirako* guztioi deitu izan digute. Esperientzia berri bat da, polita, baina antzerkiarekin ez du zerikusirik. Antzerkian ikuslearekin zuzeneko harremana daukazu. Telebistan, aldiz, sekuentzia desberdinak grabatu behar dira, mozketak daude... Telebistak ez du antzerkiaren magiarik.

— **Eta zineak erakartzen al zaitu?**

- Bai, asko. Bilbon ikastaro bat dago eta nahi nuke

parte hartzea. Hala ere, zinea askoz zailago ikusten dut. Nahi nuke egunen batean pelikula batean parte hartzea, baina konturatzen naiz gauzak ez daudela batera erraz.

Hiru antzezlanetan hartu izan duzu parte. Zein paperetan?

- Beti izan dira antzekoak. Esaterako, azken obra honen gidoia irakurri nuen berehala esan nuen Albertoren papera nahi nuela niretzat. Identifikatua sentitzen nintzen nolabait. Ez dit batera inporta tontoen, inuzenteen papera egitea, badu bere alde ona.

— **Paper komikoetan ikusten duzu zure burua?**

Nahiko nuke egunen batean drama batean parte hartzea, baina momentuz gustura nago antzezlan komikoetan. Oraindik asko daukat ikasteko. Neri funtsa duten pertsonaiak interpretatzea gustatzen zait, bizia dutenak. Ni zorionsua naiz antzeztzen eta hori da inportanteena, ilusioa izatea.

— **Zer kostatu zaizu gehien?**

- Hitz egiterakoan lasai egotea falta zait. Gehien kostatzen zaidana da, nahiz eta urteak pasa ahala, eta esperientziak erakutsita, beste zenbait gauza lantzen dituzun, inprobisazioa, esate baterako.

— **Ba al duzu aktoreren bat eredu dena zuretzat?**

- Asko gustatzen zait Jose Ramon Soroz, oso ona da.

Aspaldian ikusi duzun pelikularik onena eta txarrena?

Onenak "L.A. Confidential" eta "La buena estrella" eta ez zitzaidan batera gustatu "Pactar con el diablo".

EES1 EEK ESANA

"Konplejorik gabe berak nahi duena egiten saiatzen da"

JOKIN TXURRUKA, laguna



•••• **JAIOTAKOAK** ••••

- Ane Munin Ansola (Apirilak 6)
- Irati Gurrutxaga Zuazubiskar (Apirilak 10)
- Eneko Cerezo Urrutia (Apirilak 12)
- Miriam Elustondo Mateo (Apirilak 13)
- Janire Andres Gallego (Apirilak 13)
- Koldo Arag6n Cord6n (Apirilak 15)
- Ion Iñaki Egaña Vela (Apirilak 25)

•••• **EZKONTZAK** ••••

- Xabier Armendia Azalegi eta M. Angeles Gabilondo Urain (Apirilak 4)
- Juan Carlos Guillen Puertas eta Rosa Maria Revert Medel (Apirilak 18)
- Jose Rodriguez Rodriguez eta Sonia Roman Moreno (Apirilak 25)

•••• **HILDAKOAK** ••••

- Maria Juana Elorza Arano, 86 urte (Apirilak 3)
- Antonio Perez San Jose, 75 urte (Apirilak 9)
- Jullo Bueno Vallano, 82 urte (Apirilak 13)
- Basilia Gomez Goena, 84 urte (Apirilak 14)
- Mariano Irusta Artetxe, 84 urte (Apirilak 15)
- Antonio Ofiederra Egaña, 74 urte (Apirilak 15)
- Jose Maria Astigarraga Arozena, 86 urte (Apirilak 20)
- Salome Zenarruzabeitia Osoro, 88 urte (Apirilak 21)
- Ramon Uriguen Sodupe, 68 urte (Apirilak 25)
- Teodoro Aierdi Iriondo, 66 urte (Apirilak 25)


Juan Arrese Arizmendiarrieta

022-11988)



- 1922ko azaroaren 27an jaio zen Eibarren.
- 10 anai-arreba ziren, hirugarrena bera.
- 1932an etorri zen familia Elgoibarrera bizitzera, Melitonera. Geroago Errosario kalera joan ziren, Amabirjina duen etxera.
- Futbola gustatzen zitzaion. Melitonen bizi izan zenean, Lerungo futbol zelaian jokatzen zuen Melitongo taldearekin eta herriko kuadrilen artean partidu ugari antolatzen zituzten.
- Eskola publikoetan ikasi ondoren, gazterik hasi zen `Gabilondo y lantegian mekaniko bezala. Urte dexente egin zituen bertan.
- C. D. Elgoibarko bazkidea zen eta izugarri maite zuen herriko futbol taldea. Sarritan jokatzen zen herrian zein kanpoan jokatzen ziren partiduetara, herriko taldea animatzera.
- Bere benetako zaletasuna txirringularitza zen. Afizionatu mailan lasterketaren batean hartu zuen parte eta ondoren ere, gogotik jarraitu zituen kirol honen gorabeherak.
- `Cooperativas Elgoibarresas'eko bazkide sortzailea izan zen, 7. zenbakiarekin. San Luis Gonzaga kongregaziokoa ere bazen.
- Bi urte eman zituen Bizkaiko Zorrozan soldaduzka egiten eta beste urtebete Madrilen.
- 1954an Carmen Zengotitarekin ezkondu zen Madalako elizan. Bi mutil eduki zituzten.
- `Gabilondo y tailerra Gasteizera joan eta `Zubal S.A.'n eta, tarteka, Angel Ajubitarren tailerrean hasi zen lanean.
- Lagunekin tutean jokatzea atsegin zuen kafea hartzen zuten bitartean. `Carson' izeneko kuadrilakoa zen. San Bartolomeetan denek gorbata jazten zuten giro ederra sortuz.
- Irakurketa gogokoa zuen. Familia girokoa eta irribartsua zen.
- 1968ko irailaren 16an hil zen 46 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXE BERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK - KOROAK


NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa Klara, 16 - 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (biltegia) 943 74 13 27 (etxekoa) 943 74 01 17 - 943 74 16 56 (mobila) 908 77 07 01.



upa Alaves! esaten hasi behar dugu aste honetako erretratu zaharraren atal hau. Ondoko irudian 29-30(l denboraldiko Alaves taldeko jokalaria ikus ditzakegu. Egunkariko errekorre bat omen da eta Pedro Beristainek ekarri digu. Erretratu hakoitzaren azpian jokalaria abizena dator. Goiko aldean agertzen den jokalaria Tiburcio Beristain elgoihartarra da. Tiburcio zenaren alabak esan digunez,

1922tik 1932ra bitartean jokatu zuen aitak Alaves taldean. 29-30 denboraldian Alaves taldea Bizkaiko eta Gipuzkoako txapeliduna izan zen eta Ohorezko mailara igotzea lortu zuen Tiburcio Beristain Alaves taldea utzi eta Irungo Real Unión taldean hasi zen. Beranduago, 1932an, hain zuzen, gaur egungo Real Sociedad taldera joan zen. Garai honetan, internazionala ere izan zen eta partidu bat jokatu zuen Portugalen. Beste partidu askotara ere joaten zen, Zamoraren ordezkotara.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabolaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3. zr 943 74 12 56 - imugikor.) 909 53 23 83



e2g¹¹

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 943 74 11 89

• Eskola Kirola programaren logotipo lehiaketa

Eskola Kirola programaren arduradunek logotipo lehiaketa antolatu dute. Logotipoa profesional batek egin beharren, aproposagoa iruditu zaie Elgoibar eta Mendaroko ikastetxeetako ikasleek sortzea. Eskola Kirola programan dabilen LHko 3. mailatik BBBko 2. mailara bitarteko ikasleek har dezakete parte. Logotipoaren gaia kirola orokorrean izango da. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 12an, astearte, amaituko da eta ikastetxe bakoitzeko Eskola Kiroleko arduradunak bilduko ditu. Ondoren, lan guzilekin erakusketa egingo da Olaizaga Kiroldegian maiatzaren 16an, zapatua.

Hasi da Lagunak PHota Txapelketa

Herri Arteko txapelketatik kanpo geratu dira elgoibartarrak

Asteazkenean, hilak 6, jokatu ziren Eskuz banakako *Lagunak* Txapelketaren 7. edizioaren lehenengo partiduak. Asteazken eta ostiral arratsaldero, Plaza Handiko frontoian izango dira norgehiagokak lau kategoriatan: benjamin aurrekoak, benjaminak, alebinak eta kadeteak.

Guztira 35 bat haurrek hartuko dute parte txapelketan eta ekainaren erdi aldera amaituko da. Finalak ekainaren lehen hamabostaldian izango dira.

Herri Arteko Txapelketatik kanpo

Bestalde, elgoibartarrek agur esan diote Herri Arteko Pilota Txapelketari. Txanda bakarra jokatzeko aukera izan dute, zizurkildarren aurka, hain zuzen. Itzuleko partiduetan, nagusien mailakoek bakkarririk lortu zuten irabaztea: Ansola eta Balzolak 22, zizurkildarrek 19. Jubeniletan Leon eta Gerrikabeitiak 12 eta 22 galdu zuten eta kadeteetan, 9 eta 22 Arrillaga eta Bernedok.



Txandakako Enpresa Injinerutza



Hasierako lanbide heziketa bukatu baduzu, edo beste ikasketak batzuk egin badituzu, eta injinerutza ikastea zurekin bat datorrela uste baduzu

Aukera hori eskaintzen dizugu!

Orain, Euskal Herrian ere ikasi eta lan egin, biak batera egin ditzakezu

- 2. Lanbide Heziketa edo 3. Modulu ikasketak egin ondoren, goi mailako ikasketak
- Beste karreraren bat ikasi duenentzat injinerutza ikasketak
- 3 urte txandakako heziketa batean, enpresa eta IMHaren artean
- Lan kontratua lehen egunetik

Informazioa: 111.

Erreminta Makina Institutua

San Roke Auzoa, 1 73-943.744132
Elgoibar Faxe: 943.744153
e.mail: ingenieria@fmh.es

**matrikula epea:
maiatzaren
15a arte**

cesi aquitaine
poitou-charentes

Egoitz Mora, Euskadiko Judo txapeliduna 17 urtez azpikoetan

Joan den apirilaren 25ean Euskadiko Judo Txapelketan, Egoitz Morak, Ibai Kirol Elkarteko judokak, txapela lortu zuen 17 urtez azpiko mailan. Bigarren aldiz da dagoeneko Euskadiko txapeliduna izatea lortzen duena. Espainiako Txapelketarako sailkatu denez, maiatzaren 30ean Madrilera joango da. Iaz Melillako Espainiako Txapelketan brontzezko domina lortu zuen. Egoitzek berdur piska batekin hasi zuen denboraldia, iaz baino pisu handiagoan lehiatu behar izan baitu. Hala ere,



Egoitz Mora, ezkerretik bigarrena.

Egoitzek nagusitasunez irabazi die Arabako eta Bizkaiko txapelidunei. Aipagarria da Egoitzen arrebak, Maialen Morak, Espainiako txapelketako sektorean parte hartuko duela 15 urtez azpikoetan.

Urrezko 5 domina Andorran eta Legazpin

Ibai Kirol Elkarteko 8 ikaslek Andorran-ko Nazioarteko Judo Txapelketan parte hartu zuten eta emaitzak benetan onak izan ziren. Maialen Mora, Xabi Gonzalez, Aitor Mugerza, Zurifie Polo eta Maria Idiakezek urrezko domina lortu zuten. Azken honek

brontzezkoa ere lortu zuen beste kategoria batean. Azkenik, Josu Idiakezek brontzezko domina eskuratu zuen. Honez gain, Legazpiko Judo Trofeoan beste horrenbeste domina eskuratu zituzten Ibaikoek joan den domekan. Egoitz Mora txapeliduna izan zen 17 urtez eta 20 urtez azpikoetan. Gorka Garatek ere urrea lortu zuen 20 urtetik beherakoetan. Beste urrezko dominarik ere izan zen: Xabier Gonzalez 17 urtez azpikoetan eta Maialen Mora 15 urtetik beherakoetan. Zilarrezko domina lortu zutenak Josu Idiakez eta Zuhaitz Azpiazu izan ziren. Brontzezkoa Riki Alves-ek eta Maialen Morak lortu zuten, azken honek 17 urtetik beherakoetan.

KIROL ALBIS TEAK

• Elgoibarko Mendi Itzulia hilaren 17an izango da

Morkaikok Mendi Itzulia antolatu du urtero bezala. Aurten hilaren 17an izango da Elgoibarko mendietatik zehar egiten den buelta. Irteera goizeko 6:30ean izango da Morkaikoren egoitzan. Izena aurretik edo irteera egunean eman ahal izango da. Aurten, ohiko ibilbideaz gain, orain 60 urte egiten zen itzulia bera egiteko aukera izango da. Ibilbide luzeago bazu aukeratzen dutenei, aurretik antolatzailerei ohartaraztea eskatzen zaie. Morkaikoko kideen asmoa, itzulia amaitu ondoren mendizale guztiak elkartzea litza-teke, zerbait jan eta elkarrekin ibilaldiari buruzko gorabeherak komentatzeko.

• Urgazi Taldearen eskerrak

Urgazi Triatloi Taldeak, apirilaren 25ean izan zen Duatloian lagundu zuten guztiei eskerrak luzatu nahi dizkie. "Lehendakari Txapelketa Elgoibarren egitea, Urgazik eta Elgoibarko herriak egindako lanaren onarpenaren eta esker onaren adierazpidea izan zen. Lerro hauen bidez Urgazik publikoki eskerrak luzatu nahi dizkie Udaltzaindari, Elgoibarko Udalari, Udaltzaindari, Gurutze Gorriari, GARE irratizaleuei, Txusko Racin Club-ekoei, herriko dendariei, goizean goizetik proba amaitu arte prest egon ziren boluntarioei, eta orohar, herri osoari. Era berean, "esker-rak Diario Vasco, Egin, El Correo eta BARREN aldizkariari kirol honen zabal-kundearengatik".

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 - Lemona 3
Aurrera 1- Elgoibar 4 (2. erreg.)
Aldi Zaharra 3- Perusko 4 (2. erreg.)
Elgoibar 3- S. Herrera 0 (E. L. jub.)
Elgoibar 1 - Urki 4 (1. jub.)
Elgoibar 4- Aloña Mendi 2 (Kadeteak)
Elgoibar 1- Ariorga 2 (Infantilak)

Areto futbola

Ocaso 4 - Elgoibar 3 (Auton.)
Garp. Gurrutxaga 6 - Elgoibar 1 (1. maila)

Idarraga Kafeak I. Saria

Haundiko jokalaria erregularrena 97/98

Jokalaria	Puntuak
1- Gorka Guarrotxena	54
2- Miguel Diaz	46
3- Koldo Agirregomezkorla	35
4- Eneko Barreneketa	32
5- Karlos Madina	32
6- Jahter Gurrutxaga	30
7- Ander Iruretagoiena	26
8- Iker Atxabal	25
9- Gaizka Lazarobaster	21
10- Unai Aranburu	21
11- Joseba Igartua	17
12- Mikel Elkoro-Iribe	15
13- Jon Argoitia	11
14- Xabier Alonso	11
15- Aiert Zinkunegi	11
16- Aitor Trebiño	9
17- Igor Prieto	8
18- Mitxel Badiola	6

Eskubaloia

Pagoaga Egl. 21 - Aloña Txiki 10 (Jub. nes.)
Aloña Mendi 15 - Pagoaga Egl. 23 (Jub. nes.)
Tecnomeca Egl. 39 - Bergara 13 (Jub. mul.)
Almen 25 -Tecnomeca Egl. 29 (Jub. mut.)
Unceta Egl. 26 - Aloña Mendi 11 (Kad. nes.)
Pneumax Egl. 24 - Arrasate 16 (Kad. mul.)

Pilota

Herri Arteko Txapelketa
Elgoibar 22 - Zizurkil 19 (Nagusiak)
Elgoibar 12 - Zizurkil 22 (Jubenilak)
Elgoibar 9 - Zizurkil 22 (Kadeteak)
Lagunak Pilota Txapelketa
Konde 2- Larrea 18 (Benj. aurrekoak)
Garai 18 - Gonzalez 16 (Benjaminak)
Ugalde 113 - Martinez 9 (Benjaminak)
Guemez 18 - Arrilaga 13 (Benjaminak)
Iriondo 18 - Larrafiaga 5 (Alebinak)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 9
15:30 Pedrusko - (2. erreg.)
17:15 Elgoibar- Usurbil (2. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 9
16:00 Pagoaga Egl. - Arrate (Jub. nes.)
17:30 Tecnomeca - Aloña Mendi (Jub. mut.)

Areto futbola, Kiroldeioian

Ostirala, 8
22:15 Elgoibar- Aloña Mendi (1. maila)
23:15 Elgoibar - Araba Ebtea (Auton.)



Iraultza anarkistari buruzkoa

Frein argialetxearen *Milabidai* sailean (hau da, patrikan eramateko moduko liburn txikiena, edonon irakur daitezkeen istorio laburren) *Salataria* narrazioa irakurtzeko aukera dugu. Kasu honetan, iraultza anarkistaz diharduen istorioa kontatzen digu idazle eskoziarrak.

Lehen zatian, (libumaren erdira arte) ez da ekintzazko errelatoa, ezer bada, ideien istorioa da, egilearen ideologiaren zerbitzutan. Baina erdialdetik aurrera kontaktak bizitasuna, erakargarritasuna hanzen du, hain zuzen ekintza agertzearekin batera. X jaunak, (istorioko pertsonaia nagusietako bat), bera eta bere kideak egiten ari diren iraultza anarkistaz hitz egiten ari dela, eduki zuen zeregina kontatuko du: iraultza prestatzen duten egoitzan salarari bat zegoen susmoa hartu zuten, polizia ohartarazi eta guztia amaieraziko zuena. X jaunaren lana, beraz, salarari hori aurkitzea zen eta horretarako plan bat prestatu zuen. Une horretan kontaktak emozioa du eta iraun egiten du harik eta salataria nor den ezagutuko dugun arte.

Bukatu aurretik esan, John Ford zinegileak errelato hau hartu zuela oinarritzat filme bat egiteko.

Jon Eugi

Gorka Salmeron argazkilariar erakusketa hilaren 30era arte ikusgai

Jose Luis Padr6nek poesiak errezitatuko ditu inaugurazioan

Gaur, ostirala, hilak 8, Gorka Salmeron legazpiarraren argazki erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean, Ongarri Argazki Kolektiboak antolatuta. Hilaren 30era arte irekita egongo den erakusketa formato handiko paisaia eta pasiaren argazkiek osatzen dute. Gaur, hilak 8, inauguratuko da.

Kultur Etxean ikus daitekeen argazki erakusketa inaugurazio ekitaldia berezia izango da. Jose Luis Padr6n poetak, berak egindako poentak irakurriko ditu Andoni Salamero eta Araitz Padr6n abeslariak lagunduta. Gorka Salmeron argazkilari legazpiarrak erakusketa honetan bildu dituen argazkiak 1996ko udan ateratzen hasitakoak dira. Argazkilariaren bitartez, paisaien ikuspegi piktori-

koa isladatzen du egileak. Irudi bakoitza fotograma edo pieza batzuez osatua dago. Horrela, Ian bakoitza formato edo neurriko handikoa da. Zenbait muntaiek 2x5 metroko neurria dute. Argazki guztiek mugimendu itxura ematen dute, izan ere, guztiak daude 'mugituta'. Gorka Salmeronek azken aldian egin izan dituen lanetan zuri-beltza erabiliz izan du: 'Rwanda 1992' meportaje etnografikoan eta 'Leaxpi industri paisaia' bilduman, esaterako. Oraingoan, berriz, koloreetako teknikaz bahatu da.

Gorka Salmeronek 28 urte ditu eta dagoeneko bakarka zein taldean erakusketa mordoska egin ditu. Imagina Ezazu Euskadi' Lehiaketan lehen saria eta sari berezia irabazi izan ditu. Argazkien errestituzioan, Artelekuk antolatutako tailerretan eta hainbat ikastarotan ere parte hartu izan du.



Objetibo panoramiko eta mugikorra erabiliz, eta argazkia ateratzerakoan kamara mugituz lortzen ditu Salmeronek argazki hauek.


Antxieta Antzerki Taldearen emanaldi arrakastatsua

Azpeitiko Antxieta Antzerki Taldeak "Hamar minutu gauerdiko" antzezlanaren . . . plazaratu zuen joan den ostiralean Herriko Antzokian. Udakultura Saitetik emandako datuen arabera, 230 lagun joan ziren antzezlanaren ikustera. Jokin Martinez

elgoibartarrak antzezlanean parte hartu zuen eta berak esan digunez, "ez gendun espero, egiza esateko, horrenbeste jende jungo zanik. Emanaldiakin pozik gaude eta jendeak oso ondo pasau zabal iruditxu zitzaigun". Antzerkia ikustera joan zirenen ahotan ere, antzerako kornentarioak entzun ziren.



Hitzaldia: "Sendabelarrak eta bizimodu
orekatua"



LFRE DO ELORZA,
ETBko OSABIDEAK programako aurkezlea
Maiatzak , astelehena
Arratsaldeko etan
KULTUR ETXEAN

Kontzertua: **LORELEI**



Maiatzak 15, ostirala
Gatieko 22:00etan
KULTUR ETXEAN

Antolatzailea



Elgoibarko izarra K. E.

Laguntzaileak



Elgoibarko Udala



Gipuzkoako
Foru Aidundia

8 ostirala

19:00 'TENTAZIOAK'
LIBURUAREN
AURKEZPEN
Kultur Etxean

20:00 ARGAZKI
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
Egilea: Gorka Salmeron
Kultur Etxean
Antolatzailea: Ongarri
Argazki Kolektiboa

20:00 ARGAZKI
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
Egilea: Gorka Salmeron
Kultur Etxean
Antolatzailea: Ongarri
Argazki Kolektiboa

22:00 KONTZERTUA
Jeff Dahl eta `Nuevo
Catecismno Cat6lico'
Gaztetxean
Antolatzaileak: Gazte
Asanblada eta Zazpiki
Irratia

23:30 MUSIKA
EMANALDIA
Iñaki Arakistain saxoarekin
eta Ricardo Urrutia
kitanarekin
Lanbroa tabernan

9 larunbata

12:00 TANBORRADAREN
ENTSEIUA
Merkatu plazan

19:00 KONTZERTUA
"Sin" taldea
Gaztetxean

19:30-22:15 ZINEA
"Jackie Brown"

10 igandea

9:30 URKIOLARA
TXANGO
Irteera Sigmako zubitik
Antolatzailea:
Herri Eskola

19:30-22:15 ZINEA
"Jackie Brown"

11 astelehena

19:00 HITZALDIA
Gaia: Sendabelarrak
Hizlaria:
Alfredo Elortza
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra K. E.

12 asteartea

19:00 HITZALDIA
Gaia: "Emakumea eta
ekologia"
Hizlariak: Susana de Felipe
eta Alejandra Sanchez
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea E. T.

13 asteazkena

21:30 TANBORRADAREN
ENTSEIUA
Merkatu plazan

14 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"Dersu Uzala"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba eta
Haizea Emakume Taldea

15 ostirala

19:00 GAZTE
ASANBLADAREN BILERA
Gaztetxean

22:00 MUSIKA
KONTZERTUA
Taldea: Lorelei
Herriko Antzokian
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra

11 ZINEA



Zuzendaria: Quentin Tarantino.
Antzezleak: Pam Grier, Samuel L.
Jackson, Robert De Niro.

Jackie Brown

Jackie, ogibidez azafata den arren, trafikante batentzako dibisa kontrabandoan aritzen da diru piska bat gehiago eskuratzeko. Egun batean polizia batak Jackie atzemango du eta trafikantearen izena esatera derrigortzen dute. Irtenbide bat topatu nahian, polizien eta trafikantearen arteko borroka sortaraztea erabakitzen du Jackie-k.



• Jeff Dahl eta 'Nuevo Catecismo Cabilicot' Gaztetxean

Gazte Asanbladak eta Zazpiki Irratiak Madalako Gaztetxea bota zuteneko 7. urteurrenaren bueltan, hainbat ekintza antolatu dituzte. Ostegunean, Ongarrirekin elkarlanean, "Persiguiendo a Amy" pelikula eman zuten Herriko Antzokian eta Zazpiki Irratiak, irratsaio berezia egin zuen asteazkenean. Gaur, berriz, hilak 8, Jeff Dahl eta 'Nuevo Catecismo'

taldearen kontzertua izango da Gaztetxean. Jeff Dahl amerikarra da eta beteteranoa rockaren munduan. Azken diskoko abestiak joko ditu. Nahiz eta zirkuito komertzialetan sona handirik izan ez, urteen poderioz zaletu mordoa egin ditu Euskal Herrian. Musikari dagokionez, ez dago zehatz definitzerik. Euskal Herriko kontzertu bakarra izango denez, 500 pta.ko sarrera baino ez da kobratuko entzulego zabalenera heltzeko asmoz (Madriren 1.500 pta.tik gora ordaindu beharko dute). Jeff Dahl-ekin batera, Nuevo Catecismo Catcilico taldeak bere laugarren diskoa aurkeztuko du. Lehenago ere Jeff Dahl-ekin batera jo izan dute eta lagunak omen dira geroztik. Azken kontzertua bihar, larunbata, Ermuko 'Sin' taldeak emango du Gaztetxean arratsaldeko 19:00etan.

• Damian Muñoz-en "Daño" ikuskizuna Herriko Antzokian

Haritz Euskal Dantzari taldeak antolatuta, Damian Muñoz dantzariaren "Dario" ikuskizuna taularatuko da gaur, hilak 8, Herriko Antzokian. Iaz Elgoibarren eskaini zuen saioak sortutako inpresio bikaina dela-eta, dantza emanaldia ikusteko herritar mordoska hurreratuko dela espero dute antolatzaileek. Espazio eszenikoan basamortua eta ikus-efektu bereziak nahastuz, efektu ikusgarriak sortzen ditu

Muilozek, zoriontasunaren bila diharduten Iau pertsonaiaren bidez. Elgoibarko emanaldiaren ostean, Euskal Herriko hainbat txokotan arituko da Muftoz. Gaur gaueko emanaldira joaterik ez duenak, hilaren 27an, Donostiako Principal Antzokian Muñoz-en saioa ikusteko aukera izango du.



• Alfredo Elortzak sendabelarrei buruz jardungo du

Euskal Telebistako *Osabideak* programako aurkezlea den Alfredo Elortza eibartarrak hitzaldia emango du sendabelarren inguruan datorren astelehenean, hilak 11. Elgoibarko Izarrak antolatutako saioa arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da. Bizitza orekatuan sendabelarrek duten garrantzia azalduko du Alfredo Elortzak, besteak beste.

• Urdolara txangoa

Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak Urkiola-Urkiolamendira txangoa antolatu du iganderako, hilak 10. Irteera Herri Eskolako ikasle eta guraso guztientzat da. Autobusa Sigmako zubitik aterako da goizeko 9:30ean eta itzulera arratsaldeko 19:30ak aldera izango da.

• Nagusien Tanborradaren entseivak

Gaur, hilak 9, zapatua, Nagusien Tanborradaren lehen entseiva izango da. Trinitate jaiak bitartean, Nagusien Tanborradan parte hartuko dutenek Iarunbatero entseiatuko dute eguerdiko 12:00etan eta asteazkenean iluntzeko 21:30ean Merkatu plazako azken solairuan. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, Tanborradarako jende beharrean daude, beraz, herritarrek animatu nahi dituzte.

1 / .11Tij 1

FARMAZIAK

Egunez Gauez

- 9 Bidasolo* Zabaleta
- 10 Bidasolo* Zabaleta
- 11 Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)
- 12 Escala Escala
- 13 Bidasolo Bidasolo
- 14 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean)
- 15 Anduaga Anduaga *(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

10 igandea Folero

zine kluba



Dersu Uzala

Zine klubeko pelikula hau Haizea Emakume Taldeak aukeratutakoa da 'Ekologiaren Hamabostaldia' ren barruan. En usiako ejerzitoko talde bat azterketa geologikoak egiten ari da baso batean. Horrelako batean, Dersu Uzala ehiztari bakartiarekin egiten dute topo. Ejerzitoko kapitainaren eta ehiztariaren artean adiskidetasun sendoa sortuko da. Gizakia eta natura go-raipatzen ditu pelikula honek.

Lana

*** ESKAINTZA ***

- Neska behar da tabernako barran eta mahaia garbitzen lan egiteko. 19-25 urte bitartekoa. nr 74 45 87
- Ordenadoreen tekniko behar da. Esperientzia baloratuko da eta 26 urtez azpikoa izatea, Interesatuak bidali kurrikuluma lehenbailehen Elgoibarko 8 posta kutxatilara.
- Neska euskalduna behar da 2 ume zaintzeko. er 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14 (bulego orduetan)
- Jendea behar da rebarbatzaile lana egiteko, Interesatuak deitu 15 18 16 telefonora.
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. nr 74 12 33 (arratsaldeko 20:(X)letatik aurrera)
- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da. Tr• 74 37 22 (goizeko 8:30etik 10:30era)
- Pertsona hat behar da barran eta sukaldean lan egiteko. Ahal izanez gero esperientziarekin. 2r 74 37 60

*** ESKAERA ***

- 44 urteko emakumea eskaintzen da zaharrak zaindu edokta etxeko lanak egiteko. IT 74 09 06/74 10 55
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun osoa. Esperientzia daukat. a 19 21 28 (Axun)
- Neska eskaintzen da gauaz pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat Zaharren Erresidentzia hatean lan egin baitut. a 74 31 88 (Ana. Gaueko 20:00etatik 21:(Oetara)
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. nr 74 20 72 (Eduerne)

Agurrak

- Zorion hero hat Aniton Alberdiri maiatzaren 5ean 11 urte hete zituelako. 5. mailakoen partez eta batez ere mutilen partez. Hain guapo jarrai dezala begi urdin horiekin. Nesken partez.
- Berandu izan arren, zorionaki?! Alberto Quintas eta Gorka Intxaustiri lieren gela osoaren partez.
- Zorionak "aitxitxa flipaua"ri. Hain flipauta, hain flipauta... nora jungo ta nun amaitxuko. Malapeko zure lagunen partez.
- Zorionak Miren Albarrani hilaren 4an 15 urte hete zituelako.

Agurrak

- Zorionak Markel eta Maddalen Bergarari aste hauetan urteak bete dituztelako. Baskaran familiaren partez. Zorionak Markeli Ikastolako 6. mailakoen partez.
- Zorionak Ane Larrafiagari gaur, maiatzak 8, urteak bete dituelako, Ikastolako 6. mailakoen partez, batez ere Mirlatn, Nekane, Dorleta, Eneritz eta Maiteren partez.
- Zorionak Jñaki, Amaia eta Aneri hilaren leuan Unai beraien artera ekarri zutelako. Ikastolako 5. mailakoen partez. Orain arte bezain maixu zintzo eta txistosoa izaten jarrai dezazula. Ikasleen partez.
- Zorionak Eider Perezi eta Lara Uraini hilaren 13an eta 15ean 10 urte heteko dituztelako. Ainhoa eta Itxasoren partez. Zorionak, baita ere, Sara eta Aneren partez.
- Zorionak Ikastolako 3. mailako A eta B gelakoei jaurtartzeara egin behar dutelako maiatzaren 10ean, Ikashihurri eta Ikasgorriko hatzuen partez.
- Zorionak Maialen Solabarrietari maiatzaren 4an 4 urte hete zituelako. Zorionak, baita ere, Ion Solabarrietari hilaren 7an urteak bete zituelako. Musu haundi bal familia osoaren partez.



"Emoztazu musuxue, maitie...". Zer uste zenuen, ahaztuta geundela? Zorionak!! Mainer Rejas, musuxo bat lagunena partez hilaren 3an 15 urte hete zituelako.

tez hilaren 3an 15 urte hete zituelako.

- Zorionak Mikel Anakaberi martxoaren 5ean 6 urte hete zituelako. Gurasoen partez.



- Zorionak Nagoreri bere seigarren urtebetzean. Jone eta gurasoen partez.

- Zorionak Naia Membrillerari maiatzaren 9an 6 urte heteko dituelako. Bere, anaia, guraso eta aitona-amonen partez. Muxu haundi bat.



Agurrak

- Zorionak Aitor Konderi apirilaren 28an 7 urte hete zituelako. Familia osoaren partez. Berziki anaia Imanol eta lehengusuen partez.



- Zorionak Alaitz Garagarzari astelehenean 6 urte heteko dituelako. Etxeko partez,

- Zorionak Aneri maiatzaren 10ean 4 urte heteko dituelako, Familiaren partez, berziki Unairen partez.




- Zorionak amama M. Luisari gaur, maiatzak 8, urteak bete dituelako. Muxu haundi bat Dorleta, Iker eta Eiderren partez, Zorionak baita ere aitxibn Antoniori gaur 33 urte hete baitira amama eta bera ezkondu zirenetik. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



- Zorionak Ekaitz eta Arantzari hilaren 6an eta San urteak bete dituztelako. Baskaran familiaren partez.

- Zorionak Ekaitzi hilaren 6an 21 urte hete zituelako. Familia osoaren partez.



- Zorionak Ama eta Imanoli, hilaren 7an eta 10ean urteak bete zituelako eta beteko dituelako. Kimetzen eta etxeko guztien partez.

- Zorionak Eider Perezi asteazkenean, maiatzak 13, 10 urte beteko dituelako. Musu haundi bat familiaren partez.



- Zorionak Elixabeti gaur 9 urte hete dituelako. Aiton-amona eta osaba-izeben partez. Ondo li Eurodisneyn.

- Zorionak Igor Ulibarriri bere Lehen jaunartzean. Egun eder bat pasa dezala, Bere familiaren partez, berziki Jon eta Xabier lehengusuen partez.



- Zorionak Ioni apirilaren 28an 7 urte hete zituelako. Familiaren partez.

- Igandean Lehen Jaunartzea egingo duen Iraixe Osorori egun ederra pasa dezala opa dio bere familiak.



- Zorionak Izaskun Esnaolari igandean Lehen Jatintzea egingo duelako, Egun alai bat igaro dezala familia osoaren partez.

- Zorionak Miren Esnaolari hilaren 4an 13 urte hete zituelako. Guraso eta ahizpa Izaskunen eta aitona-amonen partez.



- Zorionak Jose Felix Telleriari bere emazte eta seme-alaba Aritz eta Maialenen partez.

- Zorionak Julen Ibarluzeari hilaren 20an 5 urte heteko dituelako. Familia osoaren partez.





Elgolbarko Herri Institutuko eskaintza

LOGSE BATXILERGOAK A-D

- *Natur eta Osasun Zientziak*
- *Giza eta Gizarte Zientziak*
- *Teknologikoa*



ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- *Automozioa, ibilgailuen elektromekanika (2.000 ordu)*
- *Txapa eta pintura (2.000 ordu)*
- *Barne Merkataritza (1.400 ordu)*
- *Erizaintza laguntzailea (1.400 ordu) Eskaintza berna*



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- *Administrazioa eta Finantzak (2.000 ordu)*

AURREINSKRIPZIOA

- *Batxilergoak eta Erdi Mailako Hezkuntza Zikloak: maiatzaren 4tik 18ra bitartean*
- *Goi Mailako Hezkuntza Zikloa: ekainaren 16tik 19ra bitartean*

Tel: 943 74 44 80 Faxa: 943 74 45 04 - E-mail: ifp.elgoibar@eas.servicom.es

tellABOR 4A

01

ECUADOR
MIDAM

-j



ZERBITZU HAUEK ESKAINTZEN DIZKIZUGU

- **Tren, itsasontzi eta hegazkinen txartelen erretserba eta emisio automatikoa**
 - **Hoteletako alojamenduen erretserbak**
 - **Gidariarekin edo gidaririk gabeko autoen alojera**
 - **O2re handienek © rimplerrilrAmt, op*rrretan ovlj miiiiii) o hobeto**
- IT CDS MED -n

ZERBITZU HAUETAN ESPEZIALISTAK GARA

- **Konbentzio eta kongresuen antolakuntza**
- **Hizkuntza ikastaroak**
- **... azoka profesionaletara bidaiak**
- **Jubilatu eta enpresa**
tadki ... o bidaia kolektiboak
- **Bldala ... lleen antoEakuntza**



Errosario, 4
Elgoibar

Tel: 943 74 45 68

Faxa: 943 74 46 05